



ONARPEN PROZESUARI BURUZ MAIZ EGITEN GALDERAK

2019-20 IKASTURTEA

ESKABIDEARI ETA IKASTETXE-AUKERA

ASKATASUNARI BURUZ

Zenbat eskabide aurkez ditzaket?

Eskabide bakarra. Bat baino gehiago aurkeztekotan, esleipenean ez da kontuan hartuko haietako bat ere ez.

Horrek esan nahi du ikastetxe bat soilik eska dezakedala?

Ez. Zure eskabidean hamabi eskari arte sar ditzakezu. Eskari bakoitza ikastetxea + hizkuntza-eredua konbinazio ezberdin bat izango da. Horrela, aukeratutako ikastetxe bakoitzean hizkuntza-eredu bat soilik eskatzen baduzu, 12 ikastetxe ezberdin arte eska ditzakezu.

Eskari ezberdinak eskatzeko ordenak ez du axola?

Bai axola du. Eskari ezberdinak zure lehentasunen arabera ordenatu behar dituzu, haietatik esleipenean ahalik eta hoberena ematen saiatuko baikara ordena horren arabera.

Plazarik gabeko, plaza gutxiko edo puntu gutxi ditudan ikastetxean sartzeko interesatuta banago, lehen tokian eskatzeari uko egin behar al diot nire bigarren aukeran lortzeko abagunea ez galtzeko?

Ez. Ikastetxeak zure lehentasunen arabera ordena ditzakezu erabateko askatasunarekin. Ikasturte honetan plazak esleitzeko ezartzen den modu berriak, lehen aukera moduan ikastetxea eskatzen duten pertsonen ez die lehentasunik ematen, orain arte egiten zen moduan. Dokumentu honetan BAREMAZIOARI BURUZ eta ESLEIPENARI BURUZ ataletan eskaintzen ditugun erantzunak irakurtzen badituzu, ulertuko duzu zergatik ordena ditzakezun ikastetxeak zure lehentasunen arabera, zure lehen aukera lortzeko oso abagune gutxi dituzunean ere. Hala ere, kontuan izan behar duzu ikastetxeek baremoko puntu gehigarria eman dezaketela ikastetxeak berak askatasunez hartutako irizpideen arabera eta lehen aukerako eskatzaileei bakarrik eman diezaioketela. Gainera, esleitutako ikastetxetik etortzeagatik ikastetxea lortzeko lehentasunaz onura ateratzea nahi baduzu, jakin behar duzu abantaila hori soilik aplikatuko zaizula lehen aukeran eskatzen baduzu.

Nire ikastetxean jarraitzeko eskabiderik aurkeztu behar al dut?

Bi urteko mailan edo altuagoan matrikulatuta bazaude, hizkuntza-eredu horretan ikastetxean jarraitzea bermatuta dago, baldin eta zure ikastetxeak egiten ari zaren mailaren hurrengoa ematen badu.

Ikastetxe batean urte bateko gelan banago, jarrai dezaket ikastetxe berean 2 urteko mailan eskabidea aurkezteko beharrik gabe?

Ez. Urte bateko geletarako ikasleen sarbidea ez dago Hezkuntza Sailak kontrolatuta, honek 2 urteko mailatik aurrerako onarpena soilik arautzen du. Zure ikastetxeak 2 urteko mailan Hezkuntza Sailaren onarpen-prozesuan parte hartzen badu, inork ez du plaza bermatuta, plaza gutziak prozesuan parte hartzen dutenen artean banatzeko eskaintzen baitira.

Nire ikastetxean hizkuntza-ereduz aldatu nahi badut eskabidea aurkeztu behar dut?

Bai, hizkuntza-eredu berean soilik duzulako jarraitutasuna bermatuta.

Orain egiten ari naizen mailaren hurrengoa edo berbera eska dezaket era berean, gaindituko dudan ala errepikatuko dudan ustearen arabera?

Ez. Epe arruntean orain egiten ari zaren mailaren hurrengorako eskabidea soilik aurkez dezakezu.

Guraso banandutakoen kasuan espezifikotasunaren bat al dago?

Ikastetxean onartzea edo beste batera lekualdatzea unilateralki gurasoetako bati eskatzea baimentzen dion epailearen sententziarik egon ezean, eskabidearen izapidea egiteko bi alderdien adostasuna beharrezkoa da. Desadostasunik egotekotan eskabidea ezin izango da tramitatu baimentzen duen epailearen sententzia eman arte.

ESKABIDEAREN AURKEZPENARI BURUZ

Nola aurkez dezaket eskabidea?

Eskabidea aurkezteko bi bide daude: Internetez eta presentzialki.

Zein da eskabidea aurkezteko epea?

Eskabidea presentzialki egiten bada, 2019ko urtarrilaren 28a eta otsailaren 8a bitartean. On-line azken eguna 2019ko otsailaren 7a izango da 24:00ak arte.

Eskabidea Internetez aurkezten badut, badut abantailaren bat?

Eskabidearen efektua bera da, baina ikastetxera joatea saihestu dezakezu, zure ordenagailutik eskatutako dokumentazio guztia eskaneatuta erantsi ahal izango duzulako, nahitaez aurkeztu behar duzuna nahiz baremoko puntuaziora sartzeko borondatez gehitu behar duzuna. Gainera, Internetez edozein ordutan burutu ahal izango duzu, ikastetxean bulegoetako ordutegietara mugatu gabe.

Zer dokumentazio aurkeztu behar dut nahitaez?

Izaera orokorraz: familia-liburua edo dokumentu baliokidea, aita eta amaren NAN, familiaren erroldatze-ziurtagiria. Gaur egun EAetik kanpo ikasten baduzu eta Lehen Hezkuntzarako edo DBHrako onarpena eskatzen baduzu, ikasketa-ziurtagiria behar da.

Zer dokumentazio aurkeztu behar dut baremoko puntuak lortzeko?

Zona-puntuak bizilekuagatik lortzeko, nahitaez aurkeztu behar den familiaren erroldatze-ziurtagiria nahikoa da; familiaren errentagatiko puntuetarako, EAEn bizi bazara, nahikoa da Hezkuntza Saila baimentzea zure datuak Foru Aldundiarekin kontsultatzeko; adingabeko seme-alaba kopuruagatiko puntuetarako, hura egiaztatzen duen familia-liburuaren fotokopia; baremoko gainerako ataletarako (aita edo amaren lantokia, eskatutako ikastetxean ikasten edo lan egiten duten senideak, familia ugaria, harrera, norbere edo senideen ezgaitasuna, kooperatibista-baldintza edo Ordezkaritza Organo Gorenak - OOGK- edo ikastetxeko Eskola Kontseiluak askatasunez onartutako irizpideak), kasu bakoitzean eskatutako dokumentazioa.

Eskabidea presentzialki aurkeztu nahi badut, nola eta non egin dezaket?

Eskabidea lehen aukera moduan eskatutako ikastetxean soilik aurkez daiteke, bere bulego ordutegian.

Eskabidea presentzialki aurkezten badut, lehen aukera moduan eskatutako ikastetxean kudeaketa guztia egin dezaket?

Ez beti. Hori zure eskabidean beste ikastetxeetako plaza eskariak sartzearen arabera da eta beste ikastetxe horietan berriaz dagozkion baremoko puntuak lortu nahi izatearen arabera da. Zure eskabidean ikastetxe bakar baterako eskariak soilik sartzen badituzu, zure eskabidea ikastetxe horretan osatu ahal izango duzu. Baina zure eskabideak ikastetxe bat baino gehiagorako eskariak sartzen baditu, zure eskabidea lehenengo ikastetxean soilik osatu ahal izango duzu, eskatutako ikastetxea alde batera utzita ematen diren baremoko puntuak kontuan hartzea nahi duzunean (familiaren errenta, familia ugaria, harrera, ezgaitasuna) edo hurbiltasunagatiko puntuak (ikastetxe bakoitzak erroldatze-ziurtagiriaren arabera lehen aukeran hautatutako ikastetxean erregistratutako dokumentazioa kontuan izanik barematu ahal izango du, edo bere kasuan, aitaren edo amaren lantokia egiaztatzen duen enpresa-ziurtagiria). Baina ikastetxe bakoitzean, ikastetxean lan egiten edo ikasten duten senideengatik, kooperatibista izateagatik edota OOG edo Eskola Kontseiluaren irizpideengatik ematen diren baremo-puntuetan sartu nahi baduzu, ziurtatu behar duzu eskatutako ikastetxe bakoitzean kasu bakoitzean eskatutako irizpidea betetzen dela; horretarako, hala behar denean, ikastetxe bakoitzean epe barruan beharrezko dokumentu egiaztatzailea entregatu behar izango duzu. Beste ikastetxeetako baremo espezifikorako dokumentazio hori entregatzeko, beharrezkoa da aurretik lehen aukerako ikastetxean eskabidea tramitatu izana.

Epez kanpo dokumentazio gehigarrikerik erantsi ahal izango dut?

Ez. Epe barruan nahitaezko dokumentazio guztia ez baduzu entregatzen, eskaera osatu gabe geratuko da eta plazen esleipenean ez da kontuan hartuko. Bestalde, esleipenean epe barruan egiaztatu gabeko baremo-puntuak ez dira kontuan hartuko.

BAREMAZIOARI BURUZ

Noiz barematzen dira eskabideak?

Ikastetxe, maila edo hizkuntza-eredu bererako plaza baino eskari gehiago dagoenean. Gutxiago badira ez da barematzen, denentzako lekua baitago.

Baremoak eskabideak puntuazioagatik zuzenean ordenatzen ditu?

Ez zehazki. Eskabideak puntuazioagatik ordenatu aurretik banandu egiten dira talde ezberdinei araudiak aitortzen dien lehentasunaren arabera.

Zein dira onarpenerako lehentasuna aitortzen zaien talde horiek?

Gainerako ikasleekiko erabateko lehentasuna dute, onarpena eskatzen den esleitutako ikastetxetik datozen ikasleek, baina soilik lehen aukera moduan eskatzen badute. Baremazioak eskabide horiek gainerakoan aurretik jartzen ditu. Lehen Hezkuntzako I. mailara edo DBHko I. mailara pasatzean ikastetxe berean eredu aldatu nahi duten eta lehen aukera moduan eskatzen duten pertsonak ere esleitutako ikastetxearen lehentasuneko talde horretan sartuko dira. Hezkuntza Sailak Musika eta Dantzako ikasketa arautuak egiten dituzten ikasleentzat sarbide-lehentasuna ezarri duen Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoetan, talde honek bigarren lehentasun maila du, esleitutako ikastetxeko ikasleen atzetik eta gainerako eskatzaileen aurretik. Kasu horretan ere, lehentasuna soilik aplikatuko da institutu hori lehen aukera moduan eskatzen bada.

Behin eskabideak ordenatzen direnean eskatzailea zein taldekoa den kontuan izanik, nola ordenatzen dira eskabideak talde bakoitzaren barruan?

Baremoko guztizko puntuazioaren arabera.

Guztizko puntuazioan berdinketarik egotekotan, nola ordenatzen dira eskabideak?

Guztizko puntuazioa baremazio-irizpide ezberdinetan lortutako puntuazio partzialen batuketara da eta araudiak haien arteko ordena hierarkikoa aurreikusten du. Horrela, berdinketarik egotekotan, eskabideak ordena hierarkiko hori jarraituz puntuazio partzialen arabera ordenatzen dira.

Eta nola hausten da berdinketa puntuazio partzial guztietan berdinketak jarraitzen badu?

Sistema informatikoak eskabide bakoitzari aleatorioki esleitzen dion zenbakiaren bitartez. Hau eskatzaileari ematen zaion frogagirian agertzen da. Eskabide bateko ausazko zenbakia zenbat eta baxuagoa izan, orduan eta lehentasun handiagoa du.

Lehen aukeran aurkeztutako eskabideen artean aurretiko esleipena egiten da eta bigarren tokian eskatutako ikastetxea lortzea soilik ahal da lehen aukerako eskabideak onartuak izan badira?

Ez. Hori iazko ikasturtera arte erabilitako esleipen-prozedurarekin gertatuko litzateke, baina hemendik aurrera esleipena beste modu batera gauzatuko da, aukera-berdintasuna eta ikastetxea aukeratzeko familien askatasuna hobetzeko.

Nola egingo da esleipena?

Ikastetxea + hizkuntza-eredua + maila konbinazioaren arabera aukera posible bakoitza kontuan hartuko da. Konbinazio horretarako jasotako eskarien guztizkoak (eskatzaile bakoitzak eskatu duen lehentasun-ordena gorabehera) postu libre kopurua gaintzen ez duenean, pertsona guztiak onartu ahal izango dituzte. Eskari-kopurua plaza libreena baino handiagoa denean, baremazio-irizpideen arabera ordenatuko dira eta lehen postuak betetzen dituzten pertsonak postu horretan sartu ahal izango dira, bere eskabidean eskatu zuten lehentasun-ordena alde batera utzita, plaza huts guztiak bete arte.

Plaza bat baino gehiago esleidi dezadakete?

Ez. Esleipena bakarra eta globala izango da eta pertsona bakoitzari plaza bakarra soilik esleitu ahal izango zaio. Baremazioz pertsona bati plaza bat baino gehiago esleidi dakiokenean, haien artean, bere eskariak aurkeztu zituen ordenaren arabera bere eskabidean nahiagoena moduan identifikatu zuen hura esleituko zaio. Gainerako plazak libre geratuko dira puntuazio txikiagoa duten eskatzaileei erantzuteko.

Esleitu ez didaten beste batentzat baino puntuazio txikiagoa dudan plaza bat esleitu ahal didate?

Bai. Esleipenak ikastetxea + hizkuntza-eredua + maila konbinazio ezberdinak kontuan hartzen dituzenez gero, haietako bakoitzerako eskatutako puntuazioa espezifikoak izango da, libre dauden postuen, eskaera kopuruaren eta gainerako pertsonen puntuazioaren arabera. Horregatik, zure eskarietako batean onarpena ez lortzea gerta daiteke, nahiz eta esleitutako eskarian baino puntu gehiago eduki.

Pertsona bati esleidi diezaiokete nik ere eskatu dudan plaza eta baremazio-irizpideen arabera esleipen-zerrendan ni bere aurretik nagoenean?

Bai, baina hori soilik gertatuko da zuri lehentasun handiagoz eskatu zenuen plaza esleitu zaizunean.

Lehen aukeran eskatu dudan plaza ezin esleidi dezadakete eta lehen aukeran eskatu ez duen beste pertsona bati esleitu?

Bai. Esleipena bakarra eta globala da eta eskari guztiak baldintza-berdintasunean kontuan hartzen ditu, eskatu diren lehentasun-ordena alde batera utzita. Lehen aukerei abantaila ematen dien aurretiko esleipenik ez dago.

Plaza bat esleituko didatela ziurtatuta daukat?

Ez. Zure puntuazioarekin eskatzaileentzako plaza libreak dituen ikastetxea + hizkuntza-eredua konbinazioa eskatzen ez baduzu, ezin izango dizugu plazarik esleitu.

Zer egoeratan geratzen naiz 2 urteko mailan plazarik lortzen ez badut?

2 urteko mailan, plaza libreak dituzten ikastetxeek epe arruntetik kanpo jaso dituzten edo jasotzen ari diren eskariei erantzun ahal izango diete ikasturtea hasi arte.

Eta zer egoeratan geratzen naiz gainerako mailetan ez badut plazarik lortzen?

Datorren ikasturtean jarraitutasuna bermatuta duzun ikastetxean jada ikasten ari bazara, ikastetxe berean jarraituko duzu. Datorren ikasturterako ikastetxe publikorik edo itunpekorik ez baduzu, Ordezkaritzak ofizios plaza bat esleituko dizu eta zuk honi uko egin ahal diozu beste bat bilatzeko.

Seme edo alaba bat baino gehiagorentzat eskabidea aurkezten badut, haietako bati plaza esleitzen bazaio bestea automatikoki onartua izateko bermerik al dut?

Ez. Onarpen-prozesuak banakako eskabideei erantzuten die eta pertsona baten eskubideak ezin zaizkio beste bati transferitu. Horrela, familia bereko bi kide bananduta gera daitezke onarpen-prozesuaren ondorioz: pertsona batek onarpena lor dezake eta besteak ez; edo biak onartuak izan daitezke, baina ikastetxe ezberdinetan. Arazoa saihesteko, maila bereko neba-arreba eskatzaileen kasuan, bermatzen da puntuazio berdina badute ez daitezela bananduta geratu hauste-zenbakiagatik, hau da, esleipen-zerrendan bata bestearen atzean geratzen dela, haien artean inongo pertsonarik gabe. Baina horrek ez du galarazten bata onartua izatea eta bestea onartu gabe geratzea.

LEHEN HEZKUNTZAKO IKASTETXE PUBLIKOETAKO IKASLEEN ZUZENEKO SARBIDEARI BURUZ ADSKRIBATUTAKO INSTITUTUAN

DBHrik ez duen ikastetxean 6. maila egiten ari banaiz, nire ibilbide-institutuan sartzeko eskabiderik aurkeztu behar al dut?

Oro har ez, baina salbuespen batzuk daude. DBHn jarraitutasunik ez duen ikastetxean ikasten ari diren 6. mailako ikasleek, adskribatutako institutuan (ibilbide-institutua deiturikoa) hizkuntza-eredu berean sartzeko ez dute eskabiderik aurkeztu behar izango, baldin eta bere ikastetxeak eredu horretarako esleitutako ikastetxe bakarra duenean. Epe barruan beste ikastetxe baterako eskabiderik ez badu aurkezten, zuzeneko sarbidea lortuko du, bere aldetik izapiderik egin gabe, esleitutako institutuan. Lehen Hezkuntzako ikastetxeak bere hizkuntza-eredurako ibilbide-ikastetxe bat baino gehiago badu, orduan eskabidea aurkeztu behar izango da, ezinezkoa baita matrikulatzea zein institutura joan nahi duen jakin gabe.

Zein dira hizkuntza-eredu bererako institutu bat baino gehiago (BHI) adskribatuta dituzten Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeak (HLHI)?

Onarpen-aginduko I. eranskinean agertzen direnak dira:

- CEIP Ángel Larena HLHI (Artzentales), IES Balmaseda BHI eta IES Zalla BHIra adskribatua.
- CEIP Basurto HLHI, CEIP Cervantes HLHI, CEIP Indautxuko Eskola HLHI, CEIP Juan Manuel Sánchez Marcos HLHI, IES Martín de Bertendona BHI eta IES Miguel de Unamuno BHIra adskribatuak (denak Bilbokoak).
- CEIP Otxandio HLHI, CPI Ikasbidea Ikastola IPI (Arrazua-Ubarrundia) eta IES Juan Orobiogoitia BHIra (Iurreta) adskribatua.

Zuzeneko sarbidea bermatuta badut, ibilbidekoaren ezberdina den ikastetxea eskatzeko eskubidea galtzen al dut?

Ez. Inork ez du galtzen onarpen-prozesuan parte hartzeko eskubidea, ibilbidekoaren ezberdina den ikastetxean sartzeko zein Lehen Hezkuntzako 6. mailatik DBHko I. mailara igarotzean eredu aldatzeko. Baina eskabidea aurkezten ez badu, ibilbide-ikastetxean jarraitu nahi duela ulertuko da eta zuzeneko sarbidea lortuko du.

Zuzeneko sarbiderako eskubidea badut, ibilbidekoaren ezberdina den ikastetxerako onarpen-eskabidea aurkez dezaket eta plazarik lortzen ez badut zuzeneko sarbidea bermatuta izaten jarraitzen dut?

DBHko I. mailarako onarpen-eskabidea aurkezten duen edozeinek eta lehen tokian adskribatutakoaren ezberdina den ikastetxea eskatzen duenak zuzeneko sarbidearen aukera eta adskribatutako ikastetxeko ikasleentzat araudiak ezartzen duen lehentasuna galduko ditu. Araudiak aurreikusten du lehentasun hori galdu egiten dela lehen aukeran esleitutako ikastetxea eskatzen ez denean.

Ibilbide-instituturako zuzeneko sarbide-eskubidea badut baina lehen tokian ikastetxe ezberdina eskatzen dut eta honetan ez dut plazarik lortzen, nire ibilbide-instituturako sarbide-aukera guztiak galtzen al ditut?

Ez. Sarbide-lehentasuna soilik galtzen duzu baina ez sarbiderako eskubidea horretarako plaza libreak badaude. Izatekotan, adskribatutako ikastetxean plaza esleitu ahal izateko zure eskabidean eskari moduan sartzea beharrezkoa da, egoki irizten diozun lehentasun-ordenarekin.

MUSIKA-IKASLEENTZAKO SARBIDE LEHENTASUNARI BURUZ

Musika ikasten dut eta onarpen-prozesuan parte hartzen dut, lehentasunik al dut gainerako pertsonen aurretik?

Ez beti, ia inoiz ez. Zuk bakarrik duzu lehentasuna Musika eta Dantzako ikasketa ARAUTUAK egiten badituzu eta onarpen-Aginduaren III. eranskinean Hezkuntza Sailak ezarri dituen Bigarren Hezkuntzako institutueta (BHI) batean sartu nahi baduzu. Dantzako ikasketa arautuak egiten badituzu, Araban dago ikastetxe bakarra. Musikako ikasketa arautuak egiten badituzu, Araban ikastetxe bat dago, Gipuzkoan beste bat eta lau Bizkaian.

Musika eta Dantzako ikasleek lehentasuna duten institutu horiek curriculum berezia ematen al dute?

Ez. Bigarren Hezkuntzako institutu arruntak dira.

Musika eta Dantzako ikasketa arautuak Bigarren Hezkuntzako beste edozein ikastetxetan bateragarri egin ditzaket?

Jakina, ikasle gehienek egiten dutena da.

INFORMAZIORAKO ETA ZERRENDETARAKO SARBIDEARI BURUZ

Non kontsulta dezaket ikastetxe ezberdinetan hurbiltasunagatik dagokidan puntuazioa?

Ikasgunean, Interneteko familientzako Hezkuntza Sailaren atalean, bilatzaile bat daukazu eskura informazio hori lortzeko.

Non kontsultatu ahal izango ditut eskatzaileen eta onarpenen zerrendak?

Prozesuaren gardentasuna eta izaera pertsonaleko datuen babesa bateratzeko, eskatzaileen eta esleipenaren zerrendak ez dira argitaratuko ikastetxeen iragarki-tauletan, baina interesatu guztiek zuzeneko sarbidea izango dute Ikasgunean, Interneteko familientzako Hezkuntza Sailaren atalean, eskatutako ikastetxe bakoitzaren mailari dagozkion zerrenda osoetara. Horretarako aurretiko erregistroa eskatuko da. Interneterako sarbiderik ez izateagatik behar baduzu, eskatutako ikastetxeetan dagozkizun zerrendetarako banakako sarbidea eskatu ahal izango duzu.